



# Gizarte Hezkuntza eta Lanbide Elkargoak Egiten diharduen Historia.

Lankide agurgarriak:

Oraingo honetan *Gizaberi* buletina monografikoa izango da, eta Lanbidearen bilakaerarekin batera eraikiz joan garen ibilbidea zein den adieraztera dator. Zeu ere ibilbide horretan lagun izan zaitugu, eta, hala ez izan bada, neurri batean zu gabe haziko da lanbidea. Horregatik da hain garrantzitsua zure partaidetza; zer egin den, zer egiten den eta zer egin daitekeen ikus dezazun. Zuk inork baino hobeto dakizu zein diren gure beharrianak, eta zeren alde egin behar dugun lan.



## Agian entzuna duzu:

- ❖ Inoiz pentsatu duzu Gizarte Hezkuntza ez dela titulua lortutakoan amaitzen?
- ❖ Inoiz pentsatu duzu Gizarte Hezkuntza ez dela lanpostua lortutakoan amaitzen?
- ❖ Inoiz pentsatu duzu Gizarte Hezkuntza etengabeko ikaskuntza-prozesua dela?
- ❖ Inoiz pentsatu duzu Gizarte Hezkuntzak bere prestakuntza-eduki propioen parte izan beharko lukeela?
- ❖ Inoiz pentsatu duzu Gizarte Hezkuntzak ezagunagoa izan beharko lukeela?
- ❖ Inoiz pentsatu duzu Gizarte Hezkuntzak herritarrekin lan egiteko prestakuntza etiko eta deontologiko profesionala izan beharko lukeela?
- ❖ Inoiz pentsatu duzu Gizarte Hezkuntzak gizarte justiziaren eta pertsonen bitzita duinerako baldintzen aldeko borrokaren abangoardian egon beharko lukeela?
- ❖ Inoiz pentsatu duzu zeu ere erantzun horien partaide zarela?

Lagundu iezaguzu erantzuna emanaz !!!

Egin bat hautagaitza batekin!

Abentura honen partaide izateko gogoia baduzu, jar zaitez Elkargoarekin harremanetan, posta helbide honetara idatzita: [ceespv@ceespv.org](mailto:ceespv@ceespv.org)

*Batzordea*

## ELKARTEGINTZATIK GHEE-CEESPVra

- ❖ **1984**: Bizkaiko Hezitzaile Espezializatuen Elkarteak sortu zen.
- ❖ **1986**: Gipuzkoa eta Arabako Hezitzaile Espezializatuen Elkarteak sortu ziren.
- ❖ **1988**: Hezitzaile Espezializatuen Elkartearen Euskal Federakundea eratzekeo prozesuari ekin zitzaion. Hortik sortu zen GIZABERRI **1995**ean (Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkarteak).
- ❖ **GIZABERRI** honako bi helburu hauekin sortu zen:
  - Gure kide diren profesionalen interes eta eskubideak, eta, ondorioz, lanbidearen interesak defendatu eta zaintzea.
  - **1999**az geroztik (orduan eskatu baitzen elkargoa egiteko dokumentazioa) Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa sortzea. **2000** urtean dokumentazioa jasotzen zuten XII liburukiak aurkeztu ziren.
- ❖ **2003ko abenduaren 22an**: Elkargoa sortu zen. Indarrean sartzea, **2003-XII-31**.
- ❖ **2005eko azaroaren 12an**: 1.go Gobernu Batzordea (Gipuzkoa).
- ❖ **2010eko uda**: 2. Gobernu Batzordea (Bizkaia).

## GHEE-CEESPVko GIZARTE HEZITZAILEAREN DEFINIZIOA

*Gizarte Hezitzailea heziketa arloko eta gizarte arloko profesional bat da, pertsonaren, gizar-tearen eta, orokorrean, erkidegoaren garapena sustatzen duen aldaketa-prozesu hezitzaileak sorrarazten esku-hartzen duena; horretarako, hainbat erreminta erabiltzen ditu, batez ere harremanezkoak, honako xedeak hartuta: pertsonen, giza taldeen eta erkidegoaren bizi-baldintzak hobetzea, gizartean zailtasun egoera handienak dituztenengan arreta berezia jarrita.*

## \*KALITATEZKO IRIZPIDE TEKNIKOAK ETA ETIKOAK

**PROFESIONAL EGITEN GAITUZTEN DOKUMENTUAK eta GHEKN** (Gizarte Hezitzaileen Elkargoaren Kontseilu Orokorra)

Honako dokumentu hauekin hornitu da Lanbidea:



- I. GIZARTE HEZKUNTZAREN DEFINIZIOA.
- II. GIZARTE HEZITZAILEAREN DEONTOLOGIA KODEA.
- III. GIZARTE HEZITZAILEAREN ZEREGIN ETA GAITASUNEN KATALOGO .

## GHEE-CEESPV-ren XEDEAK

1. Lanbide jarduna arautzea, lanbide modua dena delakoa denean.
2. Lanbidearen ordezkari izatea Herri Administrazioaren, Unibertsitatearen edota beste erakunde batzuen eta Gizartearen aurrean.
3. Ezagupena eta aurrerapena sortzea, lanbidea optimizatzeko eta, ondorioz, herritarrei eskainitako gizarte- eta hezkuntza arreta hobetzeko.
4. Profesional elkargokideen interesak defendatzea.
5. Lanbide jarduna herritarren beharrei egokitu dadin lan egitea (kalitatezko irizpide teknikoak eta etikoak oinarri hartuta\*).
6. Gizarteari lanbidea ezagutaraztea eta beronen balioa aitortua izan dadin lortzea.
7. Gizartearen bizi kalitatea hobetzea.
8. Erakunde publikoekin lankidetzan aritzea, gizarte eta hezkuntzako esku-hartze programak ezarri eta abian jartzeko ekimenetan.

## 2. GOBERNU BATZORDEAK LEHENETSI DITUEN LERRO ESTRATEGIKOAK

1. LANBIDEA SUSTATZEA.
2. GIZARTE HEZITZAILEAREN PRESTAKUNTZAREN ALDE LAN EGITEA.
3. GIZARTE HEZKUNTZA ERAIKI ETA EZAGUTZA ZABALTZEA.
4. GIZARTE ERALDAKETA.
5. ANTOLAMENDUA ETA LANKIDETZAK.



## GOBERNU BATZORDEAREN EKINTZA BATZUK

### KANPO HARREMANAK

GHEE-CEESPVk honako erakunde hauekin ditu harremanak: Eusko Jaurlaritzarekin, Aldundiekin, Udalekin, gizarte-erakundeekin, sindikatuekin, beste elkargo profesional batzuekin eta Gizarte Hezitzaileen Elkargo Kontseilu Nagusiarekin.

Elkargoak Batzordeko kideen bitartez tratatzen du erakunde horiekin guztiekin, baita elkargoko kideen bidez ere, normalean aritzen diren arloetan gure ordezkari direnekin, alegia. Horri esker, jendea gizarte-hezitzaileak herritarren premiei hobeto erantzuteko ezinbestekoak direla ulertzen hasi da .

### LAN ETA GIZARTE ARLOA

Herri-administrazioek antolatutako lehiaketen eta erakunde pribatuek egindako lan-eskaintzen kontrako alegazioak jarri ditugu, eskakizunak gure profil profesionalarekin bat etor daitezten.

Haur eta gazte babesgabeak egoitzetan hartzeko bitartekoei buruzko 131/2008 Dekretua ez betetzearen kontrako ekintzak ere antolatu ditugu.

Halaber, gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuen eta, oro har, ongizate-estatuaren murrizketen aurrean laguntza eskaini dugu. Eta, horrez gain, oinarrizko zenbait zerbitzuren egoeren inguruko interesa agertu dugu; gizarte-mugimenduekin bat egin dugu, Marea Laranja-ekin eta Gizarte Gailurrarekin, besteak beste; eta sindikatuekin harremanak izan ditugu.

### KOMUNIKAZIOA eta ANTOLAMENDUA

Gure Elkargoak bi erronka garrantzitsu bete ditu komunikazio-arloan. Batetik, Elkargo Kontseilu Nagusiaren estatuko Gobernu Batzordean parte hartu du, Komunikazioko atala lantzen, EDUSO (Gizarte Hezkuntzako web-orria) modernizatzen eta RES (Gizarte Hezkuntzako Aldizkaria) garatzen; web-orria eta aldizkaria hedabide oso garrantzitsuak dira lanbidea eraikitzeko.

Bestetik, Elkargoaren web-orria berri dugu eta komunikazio-estrategiak inplementatzen saiatu gara, elkargokideengana gerturatzeko aldera, posta elektronikoa, Facebook, Twitter eta abar arrunki baliatuz.

Antolakuntzari dagokionez, Gizaberrik bere garaian eta aurreko Batzordeak egindako lanaren fruitua biltzen saiatu gara, eta erakundearen sendotzeko dokumentu bat egingo dugu, non etorkizunerako lan-ildoak proposatu ditugun.

Gure iritziz, oraindik ere ezinbestekoa da Elkargoa indartzea eta, horretarako, ordezkariak garatzea; izan ere, ildo hori landuz egingo dute bat Elkargoaren ahaleginek profesionalen premiekin.

Elkargokideek eskatu bezala, hainbat batzorde eta lantalde jarri ditugu martxan, besteak beste Zahartze Aktiboarena eta Ikaskuntza Emozionalarena.

### UNIBERTSITATEAK ETA PRESTAKUNTZA

Elkargoak Gizarte Hezkuntza irakasten duten Euskal Herriko unibertsitateekin ere baditu harremanak, lankidetzahitzarmenen bitartez. Hitzarmen horien bidez, Elkargoak hainbat jardueretan parte hartu du: ikerketetan, ikasle eta irakasleen prestakuntzan, jardunbide profesionalaren aurkezpenetan...

Orobat, elkargokideen premiei erantzute aldera, prestakuntza-planak egin ditugu eta, plan horien barruan, hainbat ikastaro antolatu ditugu, elkargokideek ikasle zein irakasle gisa parte har dezaten.

Horrez gain, hitzarmenak sinatu ditugu prestakuntza ematen duten erakundeekin, elkargokideek ikastaroak merkeago egin ahal izan ditzaten.



## ELKARGOAK EMATEN DITUEN ZERBITZU BATZUK.

### ORIENTAZIO ETIKOA ETA DEONTOLOGIKOA

Elkargoak Deontologia Batzorde bat dauka, Gizarte Hezkuntzako profesionalak Kode Deontologikoa zertan den jakin eta aplikatu dezaten, hezkuntza-jardueretan sortzen diren dilema etikoen irtenbidea errazago aurkitzeko.

Edozein elkargokidek eska diezaioke laguntza Deontologia Batzordeari.

Planteatutako gai etiko eta deontologikoak aztertu ondoren, Batzordeak jarraibide etiko eta deontologiko egokienak biltzen ditu txosten batean, eta eskatzaileari bidaltzen dio.

### KOMUNIKAZIOA

Elkargoaren web-orria da ([www.ceespv.org](http://www.ceespv.org)) gure aurkezpen-gutuna. Elkargokideen eta Elkargoko interesen zerbitzura dago, eta pertsona eta erakunde publiko eta pribatuek libre kontsultatzeko moduan.

Facebooken ([www.facebook.com/ceespv](http://www.facebook.com/ceespv)), Elkargoak Gizarte Hezkuntzaren eta haren inguruko gaien berri ematen du, profesionalak eta erakundeek informazio eguneratua arin eskura dezaten.

Twitterren (@CEESPC) unean-uneko informazioa zabaltzen dugu, elkargokideek eta gainerako jendeak lanbidean eta Elkargoan gertatzen denaren berri izan dezaten, momentuan.

### ASEGURUAK

Elkargoan oinarrizko aseguru-estaldura eskaintzen diegu elkargokideei, jarduera profesionala babeste aldera; eta, behar izanez gero, zer pauso eman behar dituzten azaltzen diegu.

**Defentsa juridikoko aseguruari** esker, gainera, elkargokideek oinarrizko laguntza legala jaso dezakete, jarduera profesionalan edo jarduera horren ondorioz sortzen den edozein egoerarako.

Elkargokideek, nahi izanez gero, **erantzukizun zibil profesionaleko aseguru**a izenpetu dezakete, lanean elkargokideak berak edo haren kargu dauden langileek hirugarrenei kalterik eraginez gero, estaldura egokia eduki dezaten.

### LAN POLTSA

Zerbitzu honen bitartez, elkargokideei haien moduko zer lanpostu huts dauden jakinarazten diegu.

Eskaintzak posta elektronikoz bidaltzen dizkiegu lan-poltsan izena emanda dauden guztiei.

Lan-poltsan izena emateko Elkargoko Idazkaritza Teknikoarekin harremanetan jarri besterik ez dago, telefonoz, posta elektronikoz edo bulegora bertaratuta. Izena edoniz eman daiteke.

### ELKARGOAREN BERAREN PRESTAKUNTZA

Profesionalak hezkuntza-arloan esku hartzeko gaitzeko eta haien jarduera hobetzeko asmoarekin, Elkargoan prestakuntza-premien diagnostikoa egiten du eta, diagnostiko hori eta elkargokideek egindako iradokizunak kontuan hartuta, Urteko Prestakuntza Plana egiten dugu. Plan horren barruan elkargokideentzat lanbidearekin zerikusia duten hainbat gairen inguruko prestakuntza-ekintzak antolatzen ditugu, doakoak edo diruz lagundutakoak.

Elkargokideei posta elektronikoz eta arruntez ematen diegu prestakuntza-jarduera horien berri.

### AHOLKULARITZA JURIDIKOA

GHEE-CEESPVk doako Aholkularitza Juridikoko zerbitzu bat dauka elkargokideentzat, zuzenbide- eta lan-arloekin zerikusia duten lanbideko gaitan laguntzeko eta eguneroko lanean sortzen diren egoeretan aholkularitza eskaintzeko.

Elkargokideek posta elektronikoz, telefonoz edo bulegora bertaratuta eska dezakete zerbitzu hori; bulegora bertaratu aurretik hitzordua hartu behar da



**Minutu bat baldin baduzu, egin klik irudian**

**HURRENGO ALDIZKARIRAKO PROPOSAMENAK ETA IRADOKIZUNAK EGIN NAHI IZANEZ GERO, POSTA-HELBIDE HONETARA IDATZI BESTERIK EZ DUZUE: [ceespv@ceespv.org](mailto:ceespv@ceespv.org). HALABER, INTERESATZEN ZAIZUEN EDOZEIN GAITAN PARTE HARTU NAHI BADUZUE, EZ EGIN ZALANTZARIK ETA JARRI GUREKIN HARREMANETAN.**